

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Egurra jasotzeko ikastoletan apurtuak dauden aulki eta mahaiaiek eskatuko ditugu, baita etxeetan soberan dauden altzariak ere.

Guk altzari birziklatuak egingo ditugunez, lehenik egur birziklatua erabiliko dugu gure altzariak egiteko materiala sortzeko, hau da, egurrarekin serrina sortuko dugu. Stadler selecciona enpresaren bidez egurra txikituko dute makinak erabiliz. Gainera, birziklatutakoak diren egurretatik beharrezkoak ez diren materialak eta hondakinak (torlojuak, metalak, burdin zatiak...) bananduko dira iman erraldoi baten moduko zerbaitekin. Azkenik, lortu dugun serrin garbia, tolba erraldoietan pilatuko da.

Serrin guztia "Omar Coatings" enpresaren bidez aglomeratuko dugu. Serrinarekin tabla modukoak sortuko ditugu erretxina erabiliz. Erretxina fabrikatuak termoegonkorren barruan sailkatutako likidoak dira; propietate hori katalizatzaileen eraginez gogortu ondoren, ezin dute jatorrizko egoerara itzuli. Erretxina hori poliol poliesterrezko erretxina bezala erabili beharko genuke, hidroxilo libre ugari dituen erretxina, likido-forman diluitu gabe agertzen dena eta isozianato-erretxinekin erreakzionatzeko aukera ematen duena. Horrela bi baliabideak (erretxina eta serrina) nahasturik gure altzariak egiteko beharrezkoak ditugun tablak eta materiala sortuko dugu, guztiz birziklatutakoa izanen dena.

Gure web orriaren aldetik, lan osoan zehar adierazi dugun bezala, gure erosleekin harremanak gure web orri petsonalizatuaren bitartez egingo dugu. Web orri honek altzari desberdinen argazkiak, izan ditzaketen kolore desberdinak, egon daitezkeen mota desberdinak... izango ditu. Hala eta guztiz ere, ideia aproposa iruditzen zaigu gure historia ere kontatzea; hau da, gure produktuak nondik datozen kontatzea. Beraz, web orriaren hasieran, gure produktuak nolako onurak dituen adieraziko genuke; hala, eroslea gure produktuak erostera bultzatzeko, eta eroslea ingurumenari ahalik eta min gutxiago egitera bultzatzeko. Hau da, gure web orriaren helburuetako bat gure produktuak besteekiko desberdinak direla azaltzea da.